


## Gero eta errepertorio zabalagoa

Aurtengo San Sebastian egunean zenbait danborradek donostiar askorentzat ezezagunak diren doinuak joko dituzte. Sarriegik konposatutako "Comparsa de Caballeria de Gallos", "Comparsa de Caballeria de Viejas" eta "Ataque de Herriko Shemes" dira. Egia esan, doinuok ez dira erabat berriak, Donostiako Danborrada Elkarteak duela bi urte onartu baitzituen errepertorioan. Dena den, orain arte oso danborrada gutxi heldu diete doinu berriei eta beraz, herritar gehienentzat arrotzak dira. Aurten danborrada batzuek beraien kantu sortan sartu dituzte eta ziur asko, hemendik urte batzuetara ohikoak izango dira ia danborrada guztietan.

Gaur egun hamaika kantuk osatzen dute danborraden errepertorioa. Batetik, "San Sebastian Martxa", "Tatiago", "Idiarena", "Polka", "Diana" eta "Retreta", hau da, betikoak. Bestetik, aipaturiko hiru berriak. Eta azkenik, "Hau da hau" eta "Gau ibilera".

Lehen esan bezala, aipatutako hiru doinuok ez dira asmatu berriak, historian



bazterrean utzitako kantuak baizik. "Donostiako Ihauteriak" 1900. urteko liburutik berreskuratu dira. Liburu horretan Donostiako garai bateko musika bildu zen. Juan Antonio Anterok, J.M. Oiarzabal musikariaren laguntzaz, "Comparsa de Caballeria de Viejas", "Comparsa de Caballeria de Gallos" eta "Ataque de Herriko Shemes" kantuak bandarekin eta danborrekin jotzeko moldatu zituen. "Aipatutako

liburuan Donostiako historian kantatu izan diren abesti herrikoiak ditugu eta egokia iruditu zitzaigun haietako batzuk bandarekin jotzeko moldatzea", adierazi digu Juan Antonio Anterok.

1994ko Groseko Kaldereroetan jo ziren lehen aldiz Anterok eta Oiarzabalek moldatutako abestiak. Izan ere, Groseko Kaldereroetan ohitura da, kaldereroak kalez kale dabilzan bitartean, bestelako ekitaldiren bat eskaintzea plazan. Ildo honetatik, 94an Gaviota danborradak hiru kantuak jo zituen. "Martxa berri hauek Gaviota-k jo ondoren, beste danborrada batzuk bereganatzen hasi ziren eta azkenean, duela bi urte Danborrada Elkarteak errepertorioan onartu zituen", dio Anterok.

San Sebastian egunean jotzen diren kantu zerrendan, oso ohikoak ez diren beste bi aipatu ditugu: "Hau da hau" eta "Gau ibilera". Kantuok, aurrekoak ez bezala, ez dira Sarriegirenak, eta San Sebastian egunean Sarriegiren doinuak jo ohi diren arren, Donostiako tradizioaren parte direnez, errepertorioan onartu dira.

## Kozkortutako danborrariak

Altzan ere danborrada berria izango dute: Altzako Koxkorra. Ez da erabat berria, ordea, 1990etik joan den urtera arte Gurea-ko danborradarekin irten zen eta. Aurten, aldiz, elkarte berria osatu eta danborrada kaleratu behar dute. Azken batean, nahiago dute beraien kabuz danborrada kaleratu.

Altzako Koxkorran 65 lagun aterako dira eta konpainia mistoa da. Are gehiago, «erdia emakumezkoak eta beste erdia, gizonezkoak dira», zehaz-

tu digu Jose Mari Fernandez danborradakideak. Danbor nagusia Ernesto Merino da eta upeljoleen kaboa, berriz, Maria Jose Azpeitia. Danborrada hau 00:00tan abiatu eta Altza auzoan barrena ibiliko da. «01.00ak aldera Boskozaleak eta Jolastokieta danborradekin Harria parkean elkartuko gara eta denok batera joko dugu», adierazi digu Fernandezek. Altzako Koxkorran hiru banderadun irtengo dira eta Hidalgo Berrik bezalaxe, ez dute ez kantinerarik, ez gastadorerik aterako.

